

Baitaila kultura-
ren garrantzia,
komunikazio
politikoan gau-
zatzen ari diren
aldaketak, in-
formazioaren aroko desinfor-
mazioa... Ikastaroko lehen
mahai inguruan horiek aipatu
ostean, horietan sakondu zu-
ten bigarren goan: nola iraku-
rri behar dira aldaketa horiek?
Nola eragin daiteke hor?

AHO BIKO EZPATA

Tabernak azaldu zuenez, sare
sozialek sekulako aldaketa
ekarri dute kazetarien lanean:
«Lehen denbora asko behar
izaten zen informazioa egiaz-
tatzeko, gaur egun bi klikekin
informazio asko lortzen da».
Alabaina, paradoxikoa iruditu
badaiteke ere, «sare sozialek
gure lana zaildu dute». Zerga-
tik? Batetik, informazio gehie-
gi heltzen delako, eta informa-
zio horrekiko «zuhurtzia
handiagoa» behar delako. Bes-
tetik, «gure irakurlearen dis-
posizioa aldatzen du, ze, gero
eta gehiago, jendea kanal ho-
rietatik elikatzen da. Horietan
mezu laburrak dira nagusi,
irudiak leku handia hartzen
du... Beraz, irakurleak jarduera
atsegin bat bezala kontsumi-
tzen du informazioa, distrai-
tzeko, eta ez duzu arreta hain
erraz erakartzen». Ondorioz,
«entzunarazteko, ahalik eta
ozenen egin behar da garrasi».

Ipar Euskal Herrian zer esa-
nik ez. Izan ere, «pixkanaka
gure lurraldea ikusezina da,
Akitaniako departamentuaren
arabera pentsatzen delako».
Horren lekuko, Ipar Euskal He-
rrian monopolioa luzaz izan
duten hedabide pribatu eta
publikoak urruntzen ari dira.
Horrek, aukerak sortzen badi-
tu ere, zailtasunak ere biderka-
tu egiten ditu: «Gure berezita-

EZKERRA, MEMEAK ETA KOMUNIKABIDEAK

 **JENDARTEA** / Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Iratzar Fundazioak eta UEUK antolatutako “Badago al-
ternatiba!” ikastaroan, komunikazioaren esparruari eta
ideien lehiari ere heldu zioten. Horretarako, hiru aditu eta
aritu elkartu zituzten: Iñaki Soto, GARAKo zuzendaria;
Goizeder Taberna, Mediabaskeko kazetaria; eta Maialen
Arteaga, iritzigile eta kazetaria.

sun da hurbileko hedabide
bat garela. Sare sozialek urrun-
tzen ahal gaituzte, oso zaila da
algoritmo horien aurka borro-
katzea».

Horren aurrean, kanalak bi-
derkatzen eta interakzioa sor-
tzen ahalegintzen dira. Harre-
man horiek ez dira beti
atseginak izaten, ordea: «Adi-
bidez, segurtasuneko gertaka-
riak, eraso sexista bat edota
arrazakeria arazo bat lantzen
dugun aldi oro, sare sozialetan
ideia atzerakoiak areagotzen
dira. Eta irudi du aldi oro su
berri bat pizten dugula: irai-
nak izaten ahal dira, nomaden
kontraktoak, mezu arrazistak...
denbora pasatzen dugu mezu
iraingarriak ezabatzen».

Hori kontuan izanik, edukiak
sareetan nola zabaldu etengabe
hausnartzen dute. Tartean, ho-
nako irakaspena atera dute:
«Kazetariok gizartearen beste-
lako ikuspegia ematen dugu-
nean, erreazioak ezberdinak
izaten ahal dira».

ARNASKETA LAGUNDUAREKIN

Sotok aldaketa horrek hedabi-
deetan izandako eragina azter-
tu zuen. Bere iritziz, komuni-
kazio moldeak aldatu ahala,
«hedabideen bitartekaritza
funtzio hori ahuldu egin da. Ez

gara honezkero erakunde-
en, eztabaida publikoaren eta jen-
dartearen arteko bitartekari
pribilegiatuak».

Hori dela medio, «masa me-
dioak izateari aspaldi utzi ge-
nion, eliteentzako medioak
gara, baita Diario Vasco ere».
Zergatik? «Gure eragina, mo-
du zuzenean baino, bitartekari
batzuen bidez egiten delako».
Argitu zuenez, eliteak esatean
ez du Iberdrolako burua esan
nahi: «Kirolariak, sindikalis-
tak, irakasleak... bere inguru-
nean eragin gehien daukan
jende hori» du gogoan.

Aitzitik, eliteak, definizioz, ez
dira asko izaten. Horren ondo-
rio, Sotorentzat «arazo nagusia
da enpresa bezala gure bidera-
garritasuna kinkan dagoela».
Aho bizarrik gabe, «kiebran da-
goen sektore bat» dela esan
zuen, «arnasketa lagunduari»
esker bizirauten duena: «Lehen
finantziaketa *klientelar* bat ze-
goen, baina egun urteroko
erreskatea egiten zaie komuni-
kabide nagusiei».

Sotoren ustez, «beti joka-
tzen da bihar derrigor aterako
bagina bezala, eta hori ez dago
bermatuta. Horren kontzien-
tzia hartu behar dugu». Bide
batez, sektore horren ezinak
ikuspegi demokratiko batetik

zer ondorio dituen hausnartu
behar da, «herri batek termino
intelektual, kultural eta politi-
koetan garatzeko daukan gai-
tasunari nola eragiten dion».

Adibide futbolistiko baten
bidez azaldu zuen garrantzia
hori: «Europar jolasten ari za-
renean, Nico Williams aldage-
letan baloi batekin ateratzea
eta Tic-Tok bidez zabaltzea bi-
kaina izan daiteke; baina Biga-
rren Mailara jaisteko zaude-
nean, edota zure komunitatea
alde ez dagoenean... zure zile-
gitasuna ahuldu egiten da, eta
berriro ere bitartekari bat
behar duzu. Eta komunikabi-
deek bitartekari horiek izaten
jarraitzen dute. Ahuldu egin
dira, baina zilegitasun bat iza-
ten jarraitzen dute».

Andoni Olariaga
dinamizatzailea eta
Maialen Arteaga, Iñaki Soto
eta Goizeder Taberna
hizlariak, hurrenez hurren,
Eibarko Markeskoa
Jauregian.
Raul BOGAJO | FOKU



SARE BIRTUAL BEZAIN ERREALAK

Arteagak sare sozialek ekarritako iraultza komunikatiboari heldu zion. Berak azaldu zuten, unibertsitatean komunikazioa sistema bertikal bezala ezaugarritzen zuten, igorlea eta hartzailea argi bereizita. Horren aurrean, «sare sozialekin hartzaile hutsak ginenak informazio igorle bilakatu ahal gara. Sistema askoz korapilatsuagoa da, zirkularragoa. Hor, informazioaren boterearen kokalekua aldatu egin da, eta sistema kapitalistak hori nola dominatu birpentsatu behar izan du».

Arteagak nabarmendu zuten, askotan esaten denaren kontrara, ez da mundu irreal: «Plaza publikoa bilakatu da.

Bada joera bat mundu birtual gisa izendatzeko eta gutxieste-ko, errealitatetik aparteko mundu bat izango bailitzan. Uste dut hori bukatu dela. Mundu birtual izendatzen dugun hori mundu errearen ispilu edo erakusleho bat da». Zehazten zuten, «patriarkala, kapitalista eta abar da», jakina, munduaren parte baita. Hala ere, agenda markatzeko gaitasun erreala du, eta eraldatu nahi bada, «hori asumitzea inportantea da».

Eremu horren nagusitzeak baditu arriskuak, noski. Arteagak azaldu zuten, «gizarte hiperazeleratu batean, pertsona bati lau minutuz artikulatu bat irakurtzeko eskatzeak mirari bat dirudi. Eta noski, esaldi

konplexuak irakurtzeko ohiturarik ez baduzu, eta mundua bere konplexutasunean ulertzeko denborarik hartzen ez baduzu, erantzun azkar eta sinpleak behar dituzu».

Gainera, horren ondorioz, «oso zaurgarri bilakatzen zara: bat-batean zu bilakatzen zara filtrazio lan hori egin behar duena, eta egiaren-krisiaren eta gain-informazioaren garaian ariketa hori egitea oso exijentea da».

Dena den, argiak ere baditu: «Adibidez, laugarren olatu feministan edota 'Me too' mugimenduaren zabalpenean izandako inpaktua. Horrek belaunaldi oso bat feminismo-tik politizatzea ekarri zuen, agian sekula mugimendu feministan militatu gabe».

tezen bermatzea, unibertsitateko ikasle guztiei harpidetza guztiak doan eskaintzea...

Arteagak sareetan garatu beharreko estrategiez hitz egin zuen. Bere ustez, «sare sozialen *hater*-ak izateak ez garatzea inora». Gaur egun gazte batek batez beste bost ordu ematen ditu pantaila aurrean, eta hori ez disputatzea eskuinari «sekulako oparia» egitea da, bere hitzetan: «Esaten denean 'lubaki bat ere ez utzi eskuinari', 'hau ere ez' esan nahi du».

Nola lehiatu? Ezkerrak meak ere sortu behar ditu?, galdetu zuen entzuleetako batek. Arteagak argi du: «Bai! Jende bat hortik politizatzen bada, eta ondo pasatzen badu...». Are, *troll* feministak behar ote diren ere planteatu zuen, gorputza eta ahotsa jartzen duten horiei «babes-sareak» eskaintzeaz batera. Bere ustez, ezkerre askotan «zintzoegia» da, eta eduki «serio eta sakonak» hobesten ditu. Zornotzarrak aldarrikatu zuten, ordea, euskarak eta ezkerre «dena behar du, eta arrotzak diren eremu horiek ere esploratu behar ditu».

Ildo horretan, Tabernak egun urrun dauden sektoreetara heltzeko beharra azpimarratu zuen. Bere esanetan, «ez daude zertan aurreklasifikatu», eta «beraien arazoez hitz egin behar da, boza eman».

Amaitzeko, esperantzarako argi printza utzi zuen: «Euskal Herrian badugu bide alternatiboak bilatzeko joera; hala-beharrez, inposatzen digutena saihesteko. Eta bide horretan, bestelako eredu ekonomikoak dituzten tresnak eraikitze gaitasuna eta esperientzia erakutsi dugu. Nire ustez, hori izango da gure gizarte babes-teko manera eraginkorrena».

ESTRATEGIAK

Hortik abiatuta, zer egin? Leninen galdera zaharra urgaineratu zen enegarren aldiz. Sotoren hitzetan, «askotan gure diskurtsoa oso tragiko eta suizida da». Zorionez, baina, «pozoiei oso erresistenteak garen espezie bateko kideak gara. Ez dakit euskal herritarren den, edo ezkertiarren... baina gu Super Popekin, *speed*-arekin eta Cronicas Marcianekin hezi gara, eta izan duen eragina ez da izan gure diskurtsoek iragartzen zuten bezain tragikoa».

Espezie gisa ez dago erabat immunizatzerik, ordea. Sotoren zat, «estrategia da gakoa». Bere hitzetan, «askatasunaren aldeko mugimendu bat izaten jarraitzea, garapenaren ideari eustea eta eskubideei lotutako garapen politikoa gauzatzea». Bide horretan, konpromiso komunitarioak eta politika publikoak uztartuz, proposamen zehatzak egin zituen: tabernetan egunkari guztiak egon dai-

